

KANALAK

Gure bezeroekin komunikatzeko hainbat kanal erabiliko ditugu: aplikazio barrutik jakinarazpenak bidaliko dira erronka berrien, oroigarriaren edo sariaren berri emateko, zuzenean erabiltzailearen gailura iritsiz. Posta elektronikoaren bidez, komunikazio pertsonalizatuak egingo dira, promozioak, eguneratzeak eta sariak gogorarazteko, erabiltzaile bakoitzaren interesetara egokituta. SMS bidez, erronka garrantzitsuei, sariaren azken egunei edo eskaintza bereziei buruzko jakinarazpen azkarrak egingo dira.

Horrez gain, mezu zuzenak ere erabiliko dira, erabiltzaileei laguntza eskaintzeko eta galderak edo arazoak konpontzeko. Adibidez, erabiltzaile batek aplikazioa deskargatzean, ongi etorri mezua eta gida bat jasoko du posta elektroniko bidez, eta ondoren aplikazio barrutik jakinarazpenak eta SMS oroigarriak jasoko ditu; erronka amaitzean, aplikazio barruan mezu zuzen bat jasoko du sariaren eta tokiko dendetarako argibideekin.